

atera gorria!



bbk=

BBK26=

abantaila eta deskontu pila

www.bbkk.es

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
berria

Lege gordailua: BI-85-98
ISSN: 1577-9035

2005eko UZTAILA
79. zkia. DOAN

Santutxuko jaiak

Done Jakue bidea

Adur Larrea

Iñaki Uriarte

**"Zirkuitua Bilboren
'udako konplexuaren'
ondorioa izan da"**



Oruetako errebuelta

Argazkiari begira para eta antxinekoa dala emoten dau. Edo igoal lekua ezetu bez. Bada, gutako gehienok hainbestetan pasa gara bertatik, bai horixe! Horri leku horri erdaraz La Herradura esan izan jako oso errebuelta zarratua zalako.

Santo Domingora igoteko bidean egoan harik eta bide barria egin eben arte. Gaur egun bertantxe lotzen dira Santo Domingorako aldatsa eta Otxarkoagako bariantea. Edozelan be, bertoko izen jatorra Orueta da, eta holantsik esan izan jako hango baserriari, zutunik iraun artean.

Argazkia Santutxuko Mintza Taldea (AEK)k paratutako 'Begoña' liburutik hartu dogu.



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia	4	▶ Inkesta	19
▶ Santutxuko jaiak	5	▶ Mahatsberriak	20
▶ Begoña eta euskerea	8	▶ Hezkuntza: Kontaizu aldizkaria	24
▶ Taldea: Done Jakue bidea	10	▶ Munarrikolanda mendia	27
▶ Santana 27 aretoa	12	▶ Adur Larrea	28
▶ Elkarriketa: Iñaki Uriarte	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30

Honeik Bertonekoak telebisiño digitala edo kablekoa montaten dabiltzezela barruntau lei, oingo Bertonek kanaltematikoa-edo emoten dau ba! Kotxekarrerak, musikie, biajiek, arkeologidxe, historidxe, notizidxe,... Lehen-go egunien lagun batek etzera eroan eusten horreik kanalak erakusten, da holango gauzek ziren danak: kanal bat dana musikie, beste bat dana historidxe ta arkeologidxe ta kontu zaharrak, beste bat danak kotxekarrerak, beste baten biajiek gora ta biajiek behera,... Honeik Bertonekoak Begoñeko kontuek kontetan hasi ziren aspaldien, baie azkenokaz (ez dakitt plantilie barridxe daukielako ala zahartuten hasitte disimulau guren), modernidadie sartu da hamen. Ta ni pozik, ze ni ixen nintzen lehenengoa hamen tenologidxe barridxe sartuten (akordau hau seziñoa ordenadorak eitten dabela hasikeratik), ta ikusirik azkenien kasu ein dostiela ointxe botako dotez proposiziño gehidxao hamen modernidadie, postmodernidadie ta ultramodernidadie sartuteko.

Bateko, aurtan Justugunien surik ixin ixengo dalez ein basoa erretan bada-edo, erango dogun holango mikrondas handidxe eta ein beharrekoan paellie, marmitakoa edo txuletak, eingo dogu Mahatserriko lehenengo mikrondas txapelketie. Bokadilloa lehenengo berotuten dabenak irabazi. Finala Santutxu-Otxarkoaga beti lez! Jaidxetan txosna fisikoak ifini beharrekoan hametik aurrera txosna birtualak ifiniko direz: SMStik trague enkargau da txosnara ailegau orduko trague barra ganiien euingo dogu, gero internetetik pagau ta listo. Turnoak robotak eindde prosupuesto. Gero, musikie ifini beharrekoan bakotxak eran deidxela emepetresa ta gure dabena entzun deidxela, holan ez dago pelearik hau musikie edo bestie entzun gure dogule. Ta prosupuesto, herri-kirolak plaiesteisionien ixingo direz, ... Ta Bertone bera hametik aurrea rebistie barik, plasmako pantailatan editauko da, laureun kanaltematikogaz. Bakaziñoak behar doguzela pentsaten dozue, bai, baie ikusiko dozue, ikusi.

Firmatue: Hau hasikeratik eskribiten dabena: Ordenadora

GURE BAZTERRAK

FIKA KALEAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako eleizatean badogu kale luze eta bihurtunetsua, ia-ia Urizarretik hasi eta Frantzisko Txikiaren eleiza pasatuta heltzen dana. Izan bere, kale honek hartzen dau Iturribideko lehenengo tartea, eta aurrera egiten dau Aingeru Zaintzaileen Ikastetxeen ondotik, eta Zabalbide zeharkatuta, badao Santutxuren barreneraino, hau da, Frantzisko Txikiaren eleiza pasatuta Santutxu kaleraino.

Fika izena ez dago ezarrita, jende askok uste dauan legez, Mungialdeko herriaren omenez, Begoñako leinuru baten gomutan baizen. Horretara, bada, Begoñako eleizatean Fika dorretxea izan zan, eta onibar horretan izan zituan bere zuztarrak leinuru horrek, eta etxe horretatik datoz hainbat eta hainbat pertsona, Bilbo eta Bizkaiko historiari argi handia emon eutsoenak.

Ildo horretatik esan geinke, XVI. gizaldian topatu geinke Diego Perez Fikakoa, merkataritzan jardun ebana; pertsona hau oso garrantzitsua izan zan, ezik Bilboko Kontsulatuaren nagusia izan zan 1543, 1547 eta 1552. urteetan. Gogoan hartzen badogu orduko izentazinoak urte baterako zirala, garbi dago oso pertsona eragile eta ondo estimatua izan zala, 10 urtetan zehar izan zalako erakunde garrantzitsu horren burua.

GOTZON LOBERA REVILLA

**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Telefonoa:
94 473 54 48
e-posta:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Eneritz Ibarondo,
Nerea Aburto,
Iratxe Ruiz,
Unai Cuevas,
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,
Jose Otazua,
Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:**
Koldo Urrutikoetxea,
Arrate Diez
LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98
ALE KOPURUA:
1.900


2005eko uztaila - 79. zkia.

Santutxuko Jaiak 2005, bederatzi egun sargoritsuen kronika

Forma, zapora zein kolore guztietako izozkiak
prestatzen dituzte artisau estilora

*Testua: Iratxe Ruiz,
Argazkiak: Iratxe Ruiz eta Iñigo Azkona*

*Aurtengo Santutxuko Jaiak igaro
dira. Urte osoa ematen duzu data
zehatz baten zain eta konturatu
barik alde egiten dute berriro ere.
Beste 365 egun eman beharko
ditugu orain. Sargutxu berriro
ikusteko, Basarrate txosnez eta
pintxo usaiak beteta ikusteko...
azken finean: txiki zein nagusien
zoramererako temperatura
altuekin batera uztaileira heltzen
diren jaiez gozatzeko*



Umeentzat ez dago benetako jairik Gargantua ez badator... gosarik!



HERRI KIROLAK
Koadrilen arteko Herri Kirolen froga jaietako egitarauan aurki daitekeen hitzordurik dibertigarriena izan zen. Bai parte hartzen dutenentzat, bai eta ikusleentzat. Aurten Ritxi plaza obretan dagoenez, Karmelon izan da zita. Iaz baino talde gutxiagok hartu dute parte, baina hala eta guztiz ere, ikuskizun dotorea eskaini ziguten koadrilek. Mota guztietako lasterketa aldrebesak egin zituzten, abesteko abilezia erakutsi behar izan zuten, baina duda barik frogarik politena kataluniarren giza gazteluena izan zen.

BARRAKAK-WORLD SERIEAK

Jaien azken asteburuan Bilboko erdigunean ospatzen ari zen Urban Circuit delakoaren auto hotsa entzuten zen Mahatserrian. Kotxeak eta lasterketak gurean ere izan genituen: Txurdinagako kiroldegi parean urtero jartzen dituzten barraketan. Gaztetxoenen tokirik gustukoena, eta gurasoek saihesten dutena... nahiz eta erregirik erabili ez, barreken prezioa urtero asko igotzen da eta!




TRIBIAL

Jaien azken eguna, arratsaldeko 8ak aldera, Basarrate erdian, eguzkia buruan eta gazte asko gaupasan... horrela jokatu zen koadrilen arteko Tribial txapelketa igandean. Iker Uriguen izan zen beste behin aurkezlea, giroa alaitzeko eta plaza jendez betetzeko behar den saltsa baitu deustuarrak. Taldeen erantzunen inguruan zer esan... bero handia egiten zuela eta ostearekin neuronak moteldu egiten direla! Kar, kar. Ederto jokatu zuten denek! Jarraitu holan, 'santutxutasuna' bultzatuz!



MOZORROAK

Ilargia lekuko, txosnetatik buelta bat ematea baino ez zaio geratzen parrandazaleari. Gainera, aurten galaz jantzita ez ezik mozorroa armairutik atera dutenak hamaika izan dira. Termometroek islatzen zituzten tenperatura izugarriak lagunduta, talde hondartzazale bat aurkitu genuen kalimotxo eta garagardo artean. Hori bai, eguzkitarako krema babeslea ahaztuta agertu ziren, gorri-gorri... ala kalimotxoaren ondorioa zen?



GOIAN:
Giro ona ez da inoiz falta Santutxun, eh lagunok?

Basarrate plazan jendea ikuskizun bati begira.

ERDIAN:
Benetako akrobaziak ikusi genituen Karmeloko kale antzerkian.

BEHEAN:
Playback lehiaketan nesken aldarrikapenak agerian gelditu ziren.

Sugea taberna kontzerturako eszenatokia bihurtu zen.



Garraioak



Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33



Sugea taberna Iturriaga, 92
kazolatxoak eta pintxo goxoak



PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!

BEGOÑA ETA EUSKEREA

Hego Euskal Herrian lehenengo karlistada Bilbon hasi zen. Liberal ospea paratu dioten arren, Bizkaiko hiriburua Don Karlos errege gura zutenen konspirazio gune garrantzitsua izan zen. Urriaren 3an zabaldu zen erregearen aldeko aldarria eta mahatsorriek zer ikusi handia eduki zuten. Abandotarrakaz batera, espezialistak ziren matxinadetan.

MAHATSORRIEK HASITAKO KARLISTADA (1833)



Don Karlosen aldeko matxinada fraideak buru direla

1833ko urriaren 1ean Fernando VII hil zen. Bere heriotzak feudalismo zaharraren desagertzea eta kapitalismoa garatzeko sistema politikoa -liberalismoa- ekarri behar zuen bere koroapeko lurraldeetara. Espainiako oligarkia feudal zaharraren eta burgesiaren arteko akordioak horrela gauzatu nahi zuen, behintzat. Baina sistema zaharraren aldekoak ez ziren gutxi, batez ere Hego Euskal Herrian, eta heriotzaren ostean gerra iziotu zen. Don Karlosen aldeko lehen oihua Talavera de la Reina eman zuten baina benetako matxinada Bilbon hasi zen.

Bilboko gertakizunen gaineko hainbeste xehetasun eman zituzten liberal bik. Alde batetik, Pedro Pascual Uhagon oligarka eta urte hartako diputatu nagusiak txosten luzea idatzi zuen berau protagonista izan zeneko une larri haiek kontatzeko. Bestetik, Francis Bacon ingeles merkataria 'Six years in Biscay' -Sei urte Bizkaian- liburua argitaratu zuen Bilboko bere egonaldian bitzitakoa islatuz. Biek

ala biek lehenengo egunetako matxinadan mahatsorrien parte hartzea jaso zuten.

Izan ere, Bilbora urriaren 2ko goizaldean ailega zen Ferdinandoren heriotzaren berri eta haren alaba Isabel erregina izendatzeko agindua. Uhagon diputatua eta Mota korrejidorea berehala jabetu ei ziren arriskuaz eta egoera kontrolpean edukitzeko prestatu ziren. Euren beldurra zen zer egin behar ote zuten antiliberalen miliziek. 1823 eta 1833 urte bitartean, Bizkaian 'herritar armadunak' izeneko talde paramilitarrak antolatu zituzten, antzinako milizia foralen estiloan. Bilbon 'Ohorezko guardia' esaten zitzairen. Don Karlosen aldekoen aginduetara zeuden, gehien bat.

Mota eta Uhagonen jarduna herritar armadunak kontrolatzera zuzendu zen. Foruari esker, Bizkaian ez zegoen espainol armadaren troparik eta Diputazioak ez zeukan mikelete oste txiki bat baino. Horren ondorioz, mikelete guztiak Bilbon batzeko agindu zuten eta Donostiara pro-

pio bat bidali zuten tropak bidaltzeko eskatuz. Bitartean, erregea hil izanaren albistea kalerik kale eta baserririk baseri zabaldu zen. Kaleetan barbaroa gero eta ozenagoa zen.

MATXINADA


Liberal agintarien ahaleginak ustelak suertatu ziren. Herritar armadunek eta Ohorezko guardiak ez zuten euren aginduak bete gura izan. Bilbon ehunka karlista armatu kaleetara atera zen. Uhagonek idatzi zuenez, berdin antzean jokatu zuten mahatsorriek eta abandotarrak: Bilboko karlistek deialdi orokorra egin zuten eta "fue inmediatamente seguida de igual alarma y reunión de armados en Begoña y Abando, cesando ya de hecho la subordinación de estos para con las autoridades y manifestando desde los primeros momentos su intención de atentar contra la Diputación y de asesinar al Corregidor y a mí".

Herritarrek argi ikusten zuten Mota eta Uhagonen jokaera eta hasieratik bertatik matxinadarako oztopo nagusi gisa identifikatu zituzten. Edozelan be, ezin ahaztu karlisten mugimenduak prestatzeko lanetan itzal handiko pertsonak ibili zirela: militar erretiratuak -Ibarrola, ..., fraideak -San Frantzisko komentuko aita Negrete-, legegizonak -Zalbide, Epaltza-, Herritar Armadunen buruzagiak eta Diputazioko ofizial eta goi kargu asko.

Urriaren 2ko gauean, Abando eta Begoñako herritar asko Bilbora jaitzi ziren armatuta. Mota eta Uhagonek bazeukaten zergatik larritu.

Biharamunean matxinada lehertu zen, arratsaldean, herritar askok Diputazioaren egoitzara sartu ziren 'Biba Don Karlos' aldarriarekin eta Mota eta Uhagon hiltzeko oihu ozenekin. Agintari biak ihesi joan ziren teilatuetatik eta ozta-ozta libratzea lortu zuten. Ezkutaturik aste batzuk eman zuten harik eta urriaren 24ean atxilotu zituzten arte.

Uhagonek kontatu zuenaren arabera, Diputazioaren egoitzara berau hiltzeko sartu zirenak herritar xeheak ziren, "los llamados Polvora, Contrabandista, Chispero Ondarza, Carpintero Bustingorri y otros de este jaez". Artisau eta beharginak, beste behin agintarien kontrako matxinadaren lehen lerroan. Ostean, herritarak Bilboko kaleetarik barreiatu ziren eta 'baltzak' -liberalak- eta euren



Nekazariak garia batzen

ondasunak eraso zituzten. Horrelaxe hil zuten Kandido Aretxaga -Uhagonen koinatua- labainkada batez. Francis Baconek kontatu zuenez, bere gorpua fue desnudado y tratado con gran indecencia por el grupo de las cargueras", barkuetako zamak kaietara garraiotzen zituzten bilbotar emakumeak alegia.

Matxinadak Diputazio berria ekarri zuen: Valdespina markesa korrejidore, Francisco Xavier Batiz eta Fernando Zabala diputatu. Zabalak kargua utzi behar izan zuen espainol armadara Bizkaira zetorrela eta defentsa militarren ardura hartzeko. Haren partez Pedro Nobia sartu zen diputatu. Orduan sasoiari abesti hau kantatu zen Bilbon:

Markesa presidente
Batiz diputadu
Fernando de Zabala
Bizkaiaren buru

Horrelakoak kantatzen zutenak eta Bilboko kaleetan Don Karlosen izena ozen aldarrikatu eta baltzak eraso egiten zutenak, mota biko pertsonak ziren, Francis Baconek idatzi zuenaren arabera. Bilboko kaleetako matxinoak ziren, "la más baja chusma de la ciudad y el fanático e ignorante campesinado" albo-herrietatik etorria, beren-beregi Begoña eta Abandotik. Mahatsorri, abandotar eta enparauk aberatsen kontra oihukatu zuten, euren etxe, soto eta biltegietan sartzen ahalegindu ziren eta euren errege berria goratu zuten. Hilabete bi geroago liberalak Bilbon sartu ziren eta matxinada agortuta zegoela ematen zuen. Matxinada barik, zazpi urteko gerra etorri zen.



Kalderapeko

euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

BOLUETAN ROCKAZ BLAI SANTANA27REKIN

Musika talde asko ekarri dituzte bi mila pertsonentzako areto handira

12
D
U
G
U
D
N
Z
O
T
O
R
E



Izen handiko musika talde eta artistak hartu dituen musika areto erraldoia da (Toy Dolls, Steave Earle, Gilberto Santa Rosa,...). Boluetako Santa Ana poligonoan dago eta iazko irailean jarri zuten martxan bi mila pertsonentzako mega-areto hau. Harez gero hainbat dira lokal erraldoi honetan izan diren kontzertuak. Baina rock aretoa izateaz gain bestelako ekimenak ere prestatzen dituzte Santana27an.

Testua: Arrate Diez
Argazkiak: Iñigo Azkona

Arduradunek diotenez, "musikaz gain, desfileak, produktuen aurkezpenak, enpresako batzarrak, jai pribatuak eta ezkontzak ospatzeko ere prestatuta dugu lokala". Santana27 modako kluba izatea nahi dute, eduki ezberdinez osatutakoa. "Pro-

mozioa bilatzen dugu maila guztietan, lokalean zein internazionalen, eta horretarako ikus-entzuzko ekitaldiak prestatzen dituzten ekoiztetxeekin egiten dugu lan, publiko anitza erakartzeko ekimenak prestatuz", esan dute.


Santana aretoaren musika eskaintza oso zabala da. Zuzenekoak eta DJen sesioak dira aretoak gehien antolatzen dituen saioak, baina baita bideo-proiektzioak, performanceak, aurkezpenak, estreinaldiak eta inaugurazioak ere. Are-



toaren dimentsioari esker enpresa konbentzioak, grabazioak (musikakoak, telebistarako...), aurkezpenak, desfileak,... antolatzen dituzte.

DIMENSIO ERRALDOIA
Pabilioiak 10,35 metroko altuera du. Beheko solairuak bi altuera ditu, bata bost metrokoa eta bestea lau metrokoa. Beraz, 1033,06 metro koadro ditu erabilgarri. Beheko solairuan taberna eta musika aretoa dago eta lehen solairuan, aldiz, jate-txea.

Eszenatokiak zuzeneko sarrera du eskaileretatik, eta 10 metroko zabalera, 8 metroko sakonera eta 1,50 metroko altuera du. Eszenatokiaren zortitik sabaira 5,5 metroko altuera dago. Hiru kamerino daude dutxa eta guzti, eta haue-



tarik batek 140 metro karratuko areto bat dauka.

Musika aretoak bi mila pertsonentzako lekua du, lauki baten formarekin, ez dauka zutaberik eta zazpi metroko altuera du. Berau tabernarekin konektatuta dago. Aretoak duen ikus-entzuzko ekipamendurekin zuzeneko kontzertuak eta aktuzioak, kongresuak, aurkezpenak, moda desfileak, jaialdiak... egin daitezke.

MUSIKA EMANALDIAK
Iazko irailetik hasita hainbat izan dira Santana27ko kontzertuak. Antolatzaileek diotenez, "mota guztietako musika emanaldiak eskaini ditugu, esaterako, Hamlet eta Toy Dolls zein Kolonbiako kontsulatuarekin egindako jaialdi batera ekarritako 'Michua' balet folklorikoa".

UDA 2005

NATAL	499,00 Euro
MADEIRA	599,00 Euro
ISTAMBUL	400,00 Euro
PRAGA	450,00 Euro
EGIPTO	495,00 Euro

mikelizargi@euskalnet.net
Izargi Bidaiak
GRUPO STAR VIAJES
www.ibiltari.com
Iturriaga, 69
Tel. 94 473 00 45
Fax 94 412 07 28
48004 SANTUTXU - BILBO

KAIKU
Munduko Herrien Etxea
Ansuaga 1 Santutxu

ADI
ASESORIA FISCAL - CONTABLE - LABORAL ARABICO - MERCANTIL
Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza

urretxindorra megadenda
9'30etatik 20'00etara

- > Eskola-liburuak urte osoan
- > Literatura denontzat
- > Material didaktikoa
- > Musika eta bideoa

Iparragirre, 26 (48011 Bilbo)
Tfnoa: 94 4240228
urretxindorra@megadenda.com
www.megadenda.com

EUSKAL ESKOLA
Euskarak euskaldun egiten baitzaitu
Iven a aprender euskara!
todos los horarios y niveles

P.Pernet, 9 Santutxu 4731460
Arbidea, 21 Txurdinaga 4117656




Publiko anitzerako eta estilo ezberdinetako musika taldeak pasatu dira Santanatik. Adibidez, Carmen Paris, La fuga, Gatibu, MCD, Steave Earle, Paulito F.G, Toy Dolls, Hamlet, David de María...

Eta hau gutxi balitz, datozen hileetarako ere kontzertuak daude: abuztuaren 6an "X Alfonso" eta irailaren 25an "Hellcopters" taldeek joko dute.

PROMOZIO LANA

Horren kalitate eta izen handiko taldeak Boluetaraino ekartzeko hainbat lan egiten da atzetik. Arduradunen esanetan, "talde batzuk ekoizte-teen bitartez kontratatzen ditugu eta beste batzuk aretoak berak zuzenean kontratatzen ditu". Promozioari dago-kionez, web orri bat daukate : www.santana27.com. Bertan zuzenean promozionatzen



dituzte aretoko ekimen guztiak eta programazioa eskaintzen dute. Prensara ere kontzertuen berri bidaltzen dute. Kartelak eta flyersak egiteko, promozio taldeak bere diseinatzaile propioa du eta horrek berezko izaera eta aretoaren irudi aurrerakoi eta ona erakusten du.

JATETXE ZERBITZUA

Santanen jatetxea ere bada-go eta bezeroei menu merkeak zein norberaren gustukoak eskaintzen dituzte. Eguneko menua dastatzeko aukera dago 7,50 eurotan (gehi beza). Honez gain menu bereziak ere badituzte, bai taldeentzat prestatutakoak edo eta kartako menuak. Asteburuetan jatetxea arratsalde eta gauz dago zabalik. Asteazken zehar kafetegia egunero dago zabalik.


2005eko uztaila - 79. zkia.

e
I
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a

IÑAKI URIARTE

"Zirkuitua Bilboren 'udako konplexuaren' ondorioa izan da"

Iñaki Uriarte arkitektoa sarritan agertzen da hedabideetan ondare arkitektonikoaren defentsan. Urte asko daramatza gure hiriko bazterrak ezagutzera emanez eta euren balioaz kontura gaitezen lanean. Atzerritar askori erakutsi izan die gure hiria eta, batez ere, gure Ibaizabal. Kanpotik be ibilita dago Bilbo zertan den azaltzen. BERTONen kolaboratzaile izan genuen urte batzuek Campo Volantineko bizilagun hori. Azken asteotan zirkuituaren kontrako jardunean ibili da buru belarri.



*Testua: Hektor Ortega
Argazkiak: Iñigo Azkona*

Bilboko zirkuitua dela eta epaitegira jotzeko asmoa agertu duzu. Zergatik?

lazko abuztuan prentsaren bidez jakin nuen zirkuituaren proiektuaren berri eta inguruarekiko kaltegarria iruditu zitzaidan, oso. Geroago esan zuten Dario Regoyos plaza 'desmantelatu' behar zutela. Plaza hori Plan Orokorrean babestuta dago, zuhaitz eder bi dauzka eta kalitate handiko urbanizazio baten parte da. Nire artean pentsatu nuen: "Ezin da, horrek ez du aurrera egingo". Baina gero eta informazio gehiago ailegatzen zen eta hasi ziren hesiak aitatzen, harresiak,... Otsailean txosten bat egin nuen informazio guztiarekin. Gero eta dimentsio ikaragarriagoak hartzen ari zen zirkuitua. Martxoan Dario Regoyos plazako arbolak kendu zituzten.

Zer egin zuten zuhaitzekin?

Beste leku batera eraman zituztela esan zidaten Udaletxean baina geroago jakin nuen ebaki zituztela. Udalari plaza horren balioaz idazki bat eman nion eta Ondarearen udal batzordearen iritzia eskatu nuen. Handik gutxira, plaza desegiten hasi ziren. Hainbeste lekutara deitu nuen baina inork ez zuen ezer egin. Hurrengo astelehenean, plaza deseginda zegoenerako, Ondarearen udal batzordea batu zen eta proiektua onartu zuen. Batzorde burua Jose Luis Sabas zinegotzia da, zirkuituaren bultzatzailearik bat alegia. Hori eta zarata maila (117 dezibelio neurtu dituzte) epaitegira eramateko modukoa da. Euren araudiaren atal asko urratu dituzte.

Zer iruditu zaizu herritarren erantzuna?

Oso maila baxukoa. Egia esanda, dezepzio bat izan da. Bilbon horrela gabilta. Ez dago jarrera bateratu bat defendatzeko aukerarik. Sabino Arana etorbidekoek 'autobiderik ez', Indautxukoek 'diskotekarik ez',... Bilbok 'ez' asko dauzka baina ez dira gauza elkarren arteko auzolana egiteko. Begien aurrean daukaguna baino ez dugu ikusten. Hiria- ren eta hiritarren aurkako eraso



guzti hauek herritarren arteko batasuna ekarri beharko lukete.

Lehen mailako hiri bat ekitaldi handiak antolatzeko gai izan behar ei du. Gainera, dena lehengo moduan utziko dutela agindu dute agintariak...

Bilboren udako konplexuaren ondorioa da guzti hau. Bilbo Donostia eta Santander artean dago, bide erdian. Hiri hondartzadunak dira eta udan hainbeste ekitaldi erakarri daukate: unibertsitate ikastaro prestigidunak, nazioarteko jaialdiak -jazzaldia, musika hamabostaldia, zinemaldiak...-, estropadak, Donostia-Donostia klasikoa... Eta Bilbok Aste Nagusia baino ez

dauka. Oihartzun handirik gabeko hiria da Bilbo udan eta horren konplexua dago. Bestalde, Bilbok bere nortasuna galdu du. Industria hiritik zerbitzu hirira pasa da baina zerbitzu hiria izateko gauzak oso ondo egin behar dira. Horri denari erantzuten dio lasterketaren proiektua. Eta hori egiteko informazioa ezkutatute eta herritarrek pentsatu dute txirrindulari karrera baten modukoa zela, hesi gutxi batzuk eta behin azken karrerista pasa ostean, dena kendu. Eta nire ustez, Ricardo Barcala zinegotziak protagonismo handia hartu du eta alkateari berari ziria sartzeko gauza da. Bera izan da zirkuituko arduradun nagusia eta berau izan da 'She's in fashion' eta

'Best'05' sortu dituen. Astelehenean Italiako hiri bateko alkatea hartu nuen aireportuan eta ez zekien ezer Bilboko auto lasterketaz. Ez du ematen nazioartean ezelangoa oihartzunik eduki duenik.

Badirudi datorren urtean errepikatu egin behar dutela...

Baina nire ustez, indar sozialak metatu egingo dira eta kaltetuen elkarte handi bat osatu ahal da. Dena dela, lotsagarria izan da hedabide gehienek jarrera. Itsu-itsuan errepikatu dute antolatzailerik zabalduak eta bitartean sarrerak oparitzen ibili behar izan dute.

Beti zuk esan behar duzu 'ez'. Ez




dago beste inor?

Tristea da hori. Horrek esan gura du oso jende gutxi dagoela erreakzio-natzeko prest. Pertsona baten iritzia herritarrei hedabideen bitartez hel-tzen zaie. Sarritan hedabide baten kolaborazioa erabakigarria izan da, berbarako, hiriko atal bat salbatzeko. Kolaborazio hori barik, ezin liteke. Deposito franco edo Agirre txaleta, esate baterako, salbatzekoak ziren hedabide batzuek lagundu izan balute. Baina interes ekonomikoak zeuden tartean eta... Nik sarritan ezetz esan behar dut beste askok ez dutelako inoiz esaten. Ez dute esaten beldur direlako, kalte profesionalak ekarriko dizkielakoan. Eta autoestima falta ere badago. Batzuek niri ematen didate informazioa nik jendaurrean salatzen. Eurek ez dute agertu nahi, baina prestatuta daude eurek egiteko, inoren laguntza barik.

Sasoi baten arkitektoen artean ahots kritikoa gehiago entzuten zen...

Bai, hala da. Arkitektoen kolegioak diktadura sasoiaren eduki zuen itzal soziala galdu duelakoan nago. Torturak ere salatu zituen garai baten, Ibon Areso bera tartean ibili zen... Baina dena alderdi politikoen esku utzi dugu. Eta auzo elkarten mugimendua oso makal dagoenez... Nik auzo elkarte batzuekin kolaboratu izan dut -Bihotzean, Deustuko Erribera, Olabeaga,...- baina bai,



batzuetan badaukat bakardade sentsazio bat.

Azken aldiko Bilboko itxuraldetan zer da gehien gustatu zaizuna? Hiru interbentzio garrantzitsu daude. Lehenengo, Ibaizabalen garbiketa. Bigarren, metroa, eta haren kontra agertu ginenok erratuta geundela aitortu behar dugu. Akats handia egin genuen. Eta hirugarrena, espazio publikoen berreskurapena, batez ere Ibaizabaleko ibarretan. Pasealeku horiek espazio publikoa espazio demokratikoa bihurtzen dute eta gainera espekulazio larregi barik. Gero beste gauza batzuk begustatu zaizkit, espaloiak handitu izana, barbarako.

Atzerritar asko ekartzen dituzu Bilbora, profesionalak gehienak. Zelan ikusten dute Bilbo?

Sorpresaz. Hein batean ezezaguna zaien hiria ulertzeko lehenengo hemengo baldintza instituzional eta politikoak azaldu behar zaizkie: kontzertu ekonomikoa, autonomia estatutua. Bilbo zelan ikusten duten? Azkar aldatzen ari den hiri baten moduan. 'Bartzelona geldiro, Bilbo azkar', esan zidaten lehenengo baten. Denbora gutxian gauza asko egin dira eta ez da fetxa bati begira izan. Hiri gris bat espero izaten dute eta sorpresa hartzen dute. Hala ere, bestelako sorpresak hartzen dituzte, adibidez, ondare arkitektoniko eta historikoa ez dela

inon aitatzen. Dagoena defendatzeko joerarik ez dago. Gaur bati Bolueta erakutsi diot. Tximinia baino ez dute laga, Etxebarrian bezala. Baina jeneralean inpresioona ematen du. Hori bai, jendea Guggenheim ikonoak ekarrita dator.

Zuk Ibaizabaletik eramaten dituzu bisitariak...

Ni beti Ibaizabaletik hasten naiz. Barkuan sartu eta Bilbotik bokaleraino goaz. Ibai ertzen lan banaketa erakusten dut, ezkerrean lantegiak eta plusbaliak bereganatzen zituuztenak eskuinaldean, Getxon. Badago zer kontatua gauza asko desagertu diren arren.

Zortzi galdera labur

Pelikula bat: 'Metropolis' (1925)

Liburu bat: 'Historia de una seducción', Joseba Zulaikarena.

Kanta bat: Laboatik hasita estetika industrialeko musikaraino.

Arkitekto bat: Lekua ulertzen duten guztiak.

Leku bat: Itzultzera sakatzen zaituena.

Hondartza ala mendia: Hondartza baina itsasoaren anfiteatro gisa.

Janari bat: Lehen platera, beti.

Kirol bat: Olinpiadetako klasikoak.

2005eko uztaila - 79. zkia.

Bilbon uda emateak badu alde onik?




LUIS
(TXURDINAGA)

JENDE GUTXI DABIL, NORMALEAN EZ DUZU EZERTARAKO ITXARON BEHAR. ADIBIDEZ, IGERILEKUE-TAN.



IMANOL
(TXURDINAGA)

HONDARTZARA JOATEKO ERE JENDE GUTXI DAUKAGU. NEGUAN BAINO JENDE GUTXIAGO DAGO ETA LASAIAGO BIZI GARA.



JAIME
(TXURDINAGA)

BILBO GEHIEN GUSTATZEN ZAIDAN UNEA ABUZTUA DA. LASAITASUN IZUGARRIA DAGO. NORMALEAN URTEAN ZEHAR DENA JENDEZ GAINEZKA DAGO.



NAIARA
(SAN ADRIAN)

TURISMO ASKO DATOR BILBORA ETA HORI ONA DA. ETA HEMEN GAUDENOI JENDE ETA KULTURA DIFERENTEAK EZAGUTZEKO AUKERA EMATEN DIGU, ETXETIK ATERA BARIK.



ESTIBALIZ
(BEGOÑA)

BILA HASI EZKERO BATEN BAT EGONGO DA. APARKATZEKO LEKU GEHIAGO,... BAINA AUKERAN, BESTE INON HOBETO.



KIMETZ
(SANTUTXU)

BESTE MODU BATERA EZAGUTU AHAL DUZU ZURE AUZOA ETA BILBO BERA BE. KISKALTZEKO EGUN HORIEK, ASPERTZEKO EGUN HORIEK ZELAN ERABILI ERRONKA DA. LASAI PASEATU, TURISTEI HARRERA EGIN, KAR, KAR...



PILAR
(SANTUTXU)

JENDE GUTXIAGO DAGO. EGURALDI ONAREKIN, HOBETO. ETA BATEZ ERE, LASAITASUNA.

MARI
(TXURDINAGA)

NIRI ASKO GUSTATZEN ZAIT. OPORRETAN JOANGO NAIZ KANPORA BAINA EGIA ESANDA, UDAN DA BILBON EGOTEKO MOMENTURIK ONENA.



Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Bizkaiko arkeologia museoa Galtzadetako tren geltoki zaharrear atonduko dute

2007an zabalduko ditu ateak eta Euskal Museoko ondasunak gorde eta erakutsiko ditu

2007 urtean Bizkaiko arkeologia museoko ateak lehenengoz irekiko dira. Museoa Mallonako Galtzadetako tren geltoki zaharrear -Lezamako trenaren geltokian-

Testua: J. Larrazabal
Argazkia: Ricardo Perez

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Diputatu Belen Greavesek egin zuen iragarpena uztailearen 13an. Museo berriak hiru helburu nagusi edukiko ditu: aztarna arkeologiko guztiak gordetzea, prehistoria ikertzeko lekua izatea eta herritarrei Bizkaiko iraganaren lorratz horiek erakusteko tokia izatea.

Proiektua arazo bati konponbidea ematera dator. Legez, hondeaketa kanpainetatik aterako ondasun guztiak Euskal Museoa gorde behar dira. Horren ondorioz, museoaren parte handi bat aztarna ugari horien biltegi gisa erabili beharra zegoen, bestelako aukerentzako toki murrizta utziz. Museo berriak material guzti horiek batuko ditu eta, ondorioz, Euskal Museoa leku gehiago edukiko du erabilgarri. Gainera, Greavesek zehaztu zuenez, museo biak bata bestearen hurrean egonik, elkarri balio eta protagonismo gehiago emango diote.

GELTOKI ZAHARREAN

Mallonako galtzaden ondoan atonduko dute, beraz, museo berria. Hantxe dago, hain justu, Lezamako trenbidearen geltoki zaharra. Urteak dira erabiltzen ez dela, San Nikolaseko geltoki berria egin zenetik hain zuzen.

Oneka arkitektura enpresak egin du proiektua. Diputazioak jakinarazi duenez, "eraikin berri eta enblematikoa izango da, modernoa eta Zazpi

paratuko dute eta bertara eramango dituzte Bizkaiko Prehistoriako ondasun guztiak, gaur egun Unamuno plazako Euskal Museoa daudenak.



Kaleetan integratuta". Horretarako, geltokiaren eraikin zaharra konpondu egingo dute eta atzealdean beste bat egingo dute, berri. Hormigoia eta harzuria erabiliko dute.

Geltoki zaharrak 1.000 metro koadroko azalera dauka eta eraikin berriak, oster,

2.500 metro. Denetara, 3.500 metro koadro edukiko ditu museoak. Bost solairu edukiko ditu. Lur azpian, soto bi, mila metro koadroko azalera. Soto horiek geltokiko egungo nasen azpian egingo dituzte. Sotoetarako sarbidea Prim kaletik zabalduko dute, materialen sartu-irtena errazteko.

Beheko solairuan jendearentzako sarrera egongo da, baita tailer pedagogikoa ere. Gainerako pisu bietan, erakusketa aretoak eta ikerkuntza zerbitzuak paratuko dituzte. Zaharberritze tailer bat bez da faltako.

Arkeologia museoa Bilboko Udalak Dolaretxeko aldatserako prestatu proiektuan integratzen da. Gaur egun obrak hasita daude eta bertan etxeak, aparkalekuak eta lorategiak egingo dituzte. Bestalde, Lezamako Trenbide Zaharreko geltokia behin baino gehiagotan okupatu dute Zazpi Kaleetako gazteek gaztetxe gisa atontzeko asmoz. Hala ere, denbora gutxi eman zuten bertan Ertzaintzak berehala bota zituen eta.

Justuguneko erromeriak abuztuaren 6an batuko ditu mahatsorriak

Pa Ya konpartsak antolatuta, Arbolantxan eta Tetuaneko landan egingo da

Justuguneko erromeria abuztuaren 6an egingo da, urteroko legean, Arbolantxako baserrietan lehenengo eta Tetuaneko landan gero. Pa Ya Otxarkoagako konpartsak hartu zuen orain dela urte batzuk antzinako jaiia suspertzeko ardura eta, harrez gero, giro jator eta euskaldunear ospatu izan dute mahatsorri askok.

Abuztuko lehenengo zapatua da mahatsorrien erromeriaren hitzordua. Betiko lez, jaiaren lehenengo zatia Otxarkoaga gaineko Arbolantxa baserri auzoan egingo da, Gokoetxe baserriaren aurrean hain zuzen. Bertan, goizeko hamaiketan meza esango du abadeak eta, ostean, jai giroa nagusituko da. Indarrak hartzeko txokolatea banatuko dute eta Manolo Leginaren esku-soinuaren musikaz dantzatuko dute.

Hantxe emango dute eguerdia Justugunera doazenak.

Ordubatak aldera, oster, Arbolantxa utzi eta mendian gora Tetuaneko landara eramango dute erromeria. Landa hori Leon merenderuaren ondoan dagoena da. Bertako zuhaitzen gerizan egingo dute jai.

BERTSOLARIAK

Tetuaneko landako programa eguerdiko ordu-batetan hasiko da bertso saio batekin. Urtero lez, kategoria handiko bertsolariak etorriko dira. Aurten, Jon Maia zumaia-rra, Etxahun Lekue larrabetzutarra eta gurean ezagun-ezaguna den Arkaitz Estiballes.

Ondoren, koadrilek bazkaria egingo dute landan zehar barreiatuta. Txosna bat egingo da egarri direnak asetzeko. Bazkalostean, berriz, mus txapelketa handia hasiko da, arratsaldeko 4ak aldera hain justu.

Bost eta erdietan herri jokoen txanda iritsiko da. Urtero lez, parte hartze handia eta marka bikainak espero dituzte.

Eguna agortu arren, erromeriak badauka oraindik zer egina. Arratsaldeko zazpi eta erdietan berbena hasiko da musika talde batek eta gaueko bederatzietan txi-txi-burdin-



tzia egingo dute, baten bat goserik balego.

ANTZINAKO JAI

Antzineko denboretan Justugune oihartzun handiko jaiia zen, Begoñako errepublikako erromeria en-tzutetsuenetako bat. San Justoren ermitan egiten zen. Kontua da gerra ostean ermita hori Santa Marinako ospitaleko pabilioi bat egiteko beharra bota zutela eta, ondorioz, erromeria egiteko ohitura galdu zela. Urte

batzuk geroago suspertzeko ahaleginak egin zituzten baina berriz ere galdu zen.

Orain dela urte batzuk Otxarkoagako Pa Ya konpartsak hartu zuen bere gain erromeria egiteko ardura. Gainera, kutsu euskaltzalea eman gura izan diote jaiari eta mahatsorri guztien topaleku bihurtu gura izan dute. Urterik urte jai bere bidea egiten doa, ehunka lagun hurreratzen da Arbolantxara eta Tetuaneko landara eta ohitura hori indarra hartzen ari da. Uda erdian Begoñako errepublikan dauden mahatsorriek badaukate aukera polita. Ez galdu!



SANTUTXU SPORT

Kirolak

Punta-puntako kirol markak

SPORT

Karmelo 9 Santutxu 94 412 37 01

Uribarriko auzo elkarteak autobidea lur azpian ipintzeko eskaerari eutsi dio

Sinadurak batu dituzte Udalak eta Diputazioak Plan Nagusia bete dezaten

Uribarriko Gure Etxea auzo elkarteak sinadurak batu ditu azken hilabeteotan Bilboko Udalarari zein Diputazioari eskatzeko autobidea bulebar bihurtu barik lur azpian sar dezatela,

sasoi baten Bilboko Plan Nagusian onartu zuten legez. Jakinaenez, uda ostean hasiko dira bulebar berriko obrak Salbe zubiaren inguruan.

Uribarriko auzo elkartearen iritziz, 1995ean Bilboko Udalak onartutako Plan Nagusia indar betean dago. "Ezeztatu barik dagonez, indarrean dirau", esan dute auzoek. Eta Plan Nagusi horrek, hain zuzen, Maurice Ravel eta Zumalakarregi etorbideak lur azpian sartzeko asmoa zekarren bere baitan. Hala ere, proiektu hori ez da egundo gauzatu.

Auzo mahatsorri horretako elkartearen ustetan, horixe zen irtenbiderik egokiena, autoen zarata desagertuko zelako, kutsadura ere nabarmen gutxiko zelako eta auzoen arteko harremana erraztuko lukeelako. "Hobekuntza hauek islatzen dituen adibiderik grafikoena Trenbidearen Etorbidea da", esan dute auzo elkarteok.

Jakinaenez, ez da hori instituzioek darabilten asmoa. Diputazioak eta Bilboko Udalak aspaldian baztertu zuten autobidea lur azpian sartzea, "gastu ikaragarria eskatuko luke eta", eurek azaldu zuten legez. Horren ordez, autobidea bulebar bilakatzeko proiektua agindu dute eta, esan legez, uda ostean hasi eta 2008an amaituko dute. Agintariek ziurtatu dutenez, horrela komunikazio, kutsadura, trafiko eta istripuen arazoak amaituko dira.

"Errealitatea bestelako da, ordea", erantzun dute Uribarrikoek. "Egunero bertatik pasatzen diren 30.000 autoak karril bakarretik ibiliko dira plan horren arabera. Horrela, ataskoa ziurtatuta dago. Gainera, autobusen garraio publiko garrantzitsuari oztopo itzelak jarriko dizkiote". Eta



Salbe-Ugazko tunelaren erabilera murriztuko litzatekeelakoan daude auzoak.

BENETAKO ARRAZOIAK

Gure Etxea auzo elkartearen aburuz, "Diputazioak arazo bakarra konpondu nahi du proiektu horrekin: zelan lortu gaur egun Artxandako tunelatik pasatzen diren 11.000 autoak 30.000 izatea, bertako bidesari garestia ordainduz, jakina". Izan ere, auzotarron iritziz, bulebarrek trafikoa oztopatuko balu Artxandako tunel biak -bidesari-dunak, alegia- Bilbora sartzeko alternatiba handia bilakatuko lirateke.

Argudio horien ildotik Uribarriko auzo elkarteak argi dauka: "auzoarentzako ebatzirik onena autobidea Begoñatik Bilboko Begiratokiraino lur azpitik sartzea da, autobus zerbitzuen eta guneko trafikoaren ordenatzearekin batera. Horrela inkomunikazioari, kutsadurari eta auzokideen ibiltzeko eremuen beharrianari konponbide oso bat emango litzaikeelako".

ZUHATZU KALEA, AMAITUTA.-

Bilboko Udalak Txurdinagako Zuhatzu kaleko obrak amaitu ditu. Lanokaz eremu hori txukundu egin dute eta autoak aparkatzeko lekuak, oinezkoen esparruak eta umeentzako jolas-tokiak paratu dituzte. Gainera, inguruetan lorategiak atondu dituzte.



JULEN LARRINAGARI ONGI ETORRIA.-

Julen Larrinaga preso mahatsorriari ongi etorri beroa egin zioten Uribarrin uztailearen 16an. Eskoletako plazan ehunka lagun batu zen eta gero bazkari baten elkartu ziren. Larrinagak ia lau urte egin ditu barruan Amnistiaren Aldeko Batzordeetako bozeramalea izateagatik atxilotu zutenetik.



DOLARETXEKO ALDATSA, OBRETAN.-

Itxura hartzen hasi dira Prim eta Dolaretxe arteko aldatsak. Jakinaenez, Bilboko Udalak obrak hasi ditu bertan etxeak, aparkalekuak eta berdeguneak egiteko. Argazkian ikustenenez, gutxi dira lehengo landaretarik salbatu direnak. Palmondo hori eta ezer gutxi gehiago.



KONTAIZU, IKASTOLA ELKARTEAREN ALDIZKARI DIGITALA

Testua: L. Alvarez



© Bizkaiko Ikastolen Elkarte (BIE), eskubide guztiak gordeak.(c)

Hamabi urtetik gorako gaztetxoek beren-beregi eurentzat atondutako leku bat daukate zain interneten. Kontaizu aldizkari digitala da, hilerik behin berriztatzen den agerkaria. Bizkaiko Ikastolen Elkarateak plazaratzen du eta uztailakoa hamahirugarren zenbakia da. Non dagoen? Sakatu helbide hau: www.kontaizu.net

Hainbeste elkareren eta lagunengogoei eta lanari esker, gero eta ugariagoak dira interneteko baliabide euskaldunak. Gero eta gehiago dira, alegia, sarean bisitagai dauden txoko euskaldunak. Oraingo honetan euskal gaztetxo eta nerabeentzako aldizkari batekin

gatoz. Agerkari digital hori Kontaizu da eta Bizkaiko Ikastolen Elkarateak argitaratzen du.

Amaitzeko da aldizkariaren arduraduna. Bere hitzetan, helburu bigaz jaiotzen Kontaizu. Alde batetik, euskararen normalkuntzan eragiteko sortu zen, "euskarak

komunikabideetan geroago eta agerpen gehiago izateko". Bestetik, irakurle atal jakin bati begira egiten dute lan. "Gazteen artean euskarazko irakur zaletasuna sustatu nahi dugu, baita euskaraz idazteko ohitura indartu ere", esan du Gutierrezek.




Bigarren helburu hori bete ahal izateko, gazte jendearen intereseko gaiak jorratzen dituzte, gehien bat, gaztetxoek kezka eta iritziak agertzeko ere lekua utziaz. Belaunaldi gazteenek irudiari zelako inportantzia ematen dioten jakitun, ikastolen elkarteak diseinu erakargarriaz hornitu du aldizkaria.

Proiektuak badauka loturirik azkenaldion bazterrak harrotu dituen ardura batekin: ume askok euskaraz ikasten du baina gero ez da gauza euskaraz errez eta aise egiteko. Erdara da, oraindik ere, ikasle horiengan nagusi. Hori, gehien bat, inguru erdalduneko umei gertatzen zaie. Euskara eskolaz kanpo sustatu beharra ageri-agerian gelditu da eta hori da, hain zuzen, aldizkariak lortu gura duena. "Gazteei beste lanabes bat eskaini gura diegu, gogoko duten beste tresna bat alegia".

Ildo horretatik, Kontaizuko artikuluetan gazteen gustuko gaiak ez eze, gaian gaiko euskarazko hiztegia eta gazteen euskarazko argota landu egiten dute.

Aldizkaria digitala izateko arrazoia ere horretan datza, gazteen neurriko produktu bat egin nahi izatean alegia. Baina beste arrazoi batzuk be badira. Esate baterako, euskarazko hedabide gehienak ikus-entzunezkoak edo paperezko-



ak diren heinean, beste euskarri bat erabili gura izan dute, "eskaintza areagotzeko".

ATALAK

Kontaizu 2003ko irailean jaiotzen eta hilean behin berriztatzen dituzte edukiak. Denetara aldizkariak hamabost atal ditu. Elkarrizketa nagusia, musika barriak, bertsozaleen txokoa, literatura, kirolak, artea, sexua, internet,... horra hor sail horietarik batzuk. Atal bakoitzeko arduraduna arlo horretako aditu bana da.

Badira beste atal batzuk be. Berbarako, denborapasak. Bertara jotzen duenak joko ezagunekin olgetan ibiltzeko parada edukiko du:

Aldizkaria irakurtzeko jo helbide honetara: www.kontaizu.net

tetris, pacman, letra-zopa... 'Ikastolatik dator' sailak ikastolek eurek sortutako albisteak dakartzat. Lehiaketa eta agenda ere badaude zenbaki guztietan.

Gainera, hemeroteca atalean lehengo zenbakiak kontsultatzeko aukera dago. Horrela, bertara sartu ezker orain arteko hamahiru zenbakiak ikusgai edukiko ditu.

Uztailakoa zenbakian, esate baterako, Basilio Astulez abesbatza zuzendaria elkarrizketatu dute. Gainera, Mungia Los Moñas musika taldearekin egon dira eta Xabier Montoiaren ipuin bat eskegi dute. Kirol sailen wind surfa hartu dute hizpide eta interneteko txokotan Jabi Zabalak diseinuaren gainean luze eta sakon idatzi du. Josu Rementeria bertsolariagaz be bertan egon dira eta Lekeitioko Kale Antzerkia jaialdiaren kronika bat paratu dute.

E H E T I K G O R A

G O R A

E H E T I K

Bilbao Aste Nagusia 2005

Abuztuak 20 - 28 Agosto

ADUR LARREA: "GUK ERE USTE GENUEN GUREA ONENA ZELA"

ASTE NAGUSIKO
KARTEL LEHIAKETA
IRABAZI DU
GAZTE MAHATSORRIAK
UNAI REQUEJOREKIN
BATERA

Arte ederretako bi ikaslek irabazi dute aurtengo Bilboko Aste Nagusiko kartel lehiaketa: Unai Requejo santurtziarrak eta Adur Larrea santutxuarrak. Azken horrekin hitz egin dugu oraingoan, lehiaketaren nondik norakoen inguruan. Bere paperezko marijaiak jai alaitsuak iragarriko dizkigu aurten.

Testua: Eneritz Ibarondo
Argazkiak: BERTON

Horrelako lehiaketa batetara aurkezten zaren lehenengo aldia hau izan da?

Bai. Kartel lehiaketa batetara bai, lehenengo aldia da. Inoiz ez dut izan horrelako ikusmirarik eta bai, aurten ideia ona genuela uste genuen eta aurkeztea erabaki genuen.

Eta saria jasotzen duzuen lehenengo aldia

ere hau izan da ala beste ezertan saririk jaso al duzue inoiz?

Bai. Beno, Unai Requejok bereziki argazkilartzan jaso ditu sari batzuk, eta nik ilustrazioan eta komikian ere. Baina orain arteko garrantzitsuena hala ekonomikoki nola ezagutza mailan Aste Nagusikoa izan da.

TABERNA
Dordoka
Pza. San Martín de la Ascensión
SANTUTXU

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Kafe
Mañari
Médico M. Pedro Cortés, 9
48006 BILBAO Telf. 94 411 99 33

2005eko uztaila - 79. zkia.

Zuen lana aurkeztu zenute-nean espero zenuten irabazle ateratzea, edo probatzeagatik aurkeztu zineten?

Ideia, berez, pentsatzen genuen ona zela, eta aukerak bazituela. Eta aurkezten zarenean ere badaukazu esperantza bat. Gainera, denbora genuen, aspertuta geuden, eta...

Finalisten artean geratu zinetela jakin zenutenean, zer izan zen burura etorri zitzaizuen lehenengo gauza?

Gu nahikoa berandu enteratu ginen. Kanpoan geunden eta deika ibili ziren, baina noski gu enteratu ere ez. Egun pare bat geroago esan ziguten, eta kristoren poza. Ia ahaztua genuen gauza bat, paso egiten genuen hortaz, eta bat-batean finalisten artean zaudela jakitea itzelezko poza izan zen. Eta gero ea, jendea engainatzen bozkatzeko eta...

Eta pozaz gain, ilusio edo esperantza handiagorik piztu zitzaizuen?


Bai. Gero, beste kartelak ikusita, morala apur bat jaitsi zitzaigun, gainerako finalistak nahikoa onak zirelako. Baina beno, guk ere uste genuen gurea onena zela, modestia aparte utziaz.

Finalisten artean irabazle nor izango zen jendeak erabaki zuen bozka bidez. Baina finalista horiek nork aukeratu zituen?

Epaimahai batek aukeratzeko dituzte sei finalista horiek. Hor ere izenak ez dituzte ematen, guk ere ez genekien nortzuk ziren haiek.

Nork osatu zuen epaimahai?

Baziren Udaleko ordezkariaren bat, gero pintoreren bat edo artista pare bat, Athleticeko



Urzaiz futbolaria ere bazegoen, eta besteren bat. Egia esan ez dakit nor zen epaimahai, bere garaian irakurri nuen baina honez gero ahaztua daukat.

Beraz, denak ez ziren adituak ezta?

Ez, ez, ez, batere, batere. Ez dakit, sei edo zazpiko epaimahai horretatik, hiru edo ziren pinto-reak ...

Eta hori zer iruditzen zaizu?

Egia esan, antolatzaileek egin nahi dutena da nahikoa gauza plurala izatea. Baina beno, kartel lehiaketa bat da azkenean. Niri ez zait inporta nor den epaimahai, baina agian jende aditua bada, teoriarik profesionaltasun gehiago egongo da, baina teoriarik bakarrik. Jendearen iritzia ere askotan garrantzitsuagoa da.

Askotan jendearen iritziak balio gehiago dauka

Horrelako sari bat irabazita etorkizunerako zer espero duzue? Aurrera jarraitzeko indarrak eman dizkizue honek?

Bai, dirua agian inbertituko dugu beste proiekturen batean edo. Baina printzipioz ematen diguten pentsatzen hasiko gara, oraindik ez baitigute eman...

GOJIAN S.C.L.
LAN BERTIKALAK
Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa
ANDAMIO BARIK
TELEFONOAK:
630 08 09 38
659 45 16 22

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Inuxente hori! Hegalaldi merkeak bost eurotan non topatuko dozuz ba!

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Azkenaldion belarrarian txistukadea entzuten dozula? Ui, ui, ui... Altuegi egiten dogu berba zutaz...

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Zuk dakizun hori begira dekozu. Baina zeuri begira eta zeure begira. Eta ez da iguala. Mugi!

Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Etxe horretatik atarako zara inora joateko? Ezta oporretara be!

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Noiztik ez dozu zeure zorion egunean errondarik pagetan? Beti atxaki bera, hortik zehar ei zabiltzala oporretan...

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Neuri bost, neuri bost, neuri bost, neuri bost... Ez dekozu beste erretoligarik? Zeuri bost zer?

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Ez izan papaue! Crema emotea ez da koldarren kontua. Eguzkitik be babestu beharra dago!

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Hondartzako izarrik dizdiratsuena izateko ez dozu ezer behar. Zu zeu izan... eta listo!

Sagitarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Liburudendara joango zara eta udako irakurketak erosiko dozuz. Ea aurten, lelenoz, erosi ez eze irakurri be egiten dozuzan.

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Sombreiru horteratxu bat, eguzkitarako antiparrak, kalimotxo bat izotzekin, geriza apur bat eta txosna barra zati bat. Horra zer gutxi behar dozun bidanmoduko uda bat emoteko.

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Taketa lez zabiltz gero! Indartsu, bai horixe! Baina kontuan euki oraindino hasi be ez dogula egin!

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Opor gozoak pasatu behar dozuz hemendik urrun. Ez ete da izango leku hori txikiegia zuretzat?

agenda

ABUZTUAK 6
JUSTUGUNE. ERROMERIA
ARBOLANTXAN ETA
TETUANeko LANDAN.
ANTOLATZAILE: PA YA
KONPARTSA.

ABUZTUAK 13-18
GERNIKAKO JAIK.

ABUZTUAK 15.
ANDRA MARI EGUNA.
ERROMERIA BEGOÑAN.

ABUZTUAK 20-28
ASTE NAGUSIA.

Aste Nagusia 2005. Matsorritarren Txokoa
INFERNU MADARIKATUA



berriro sarean

www.pa-ya.biz

Pa-Yak baditu alternatibak